

Beasain

[agenda]

2011ko ekaina

Ekainaren 3tik 12ra LOINATZ JIAK

9 ▶ OSTEGUNA

17:15ean.- Akordeoi Orkestra, Udal Batzar Aretoan.
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

16 ▶ OSTEGUNA

19:30ean.- Kontzertu berezia, (maila altuxeagoa duten ikasleak) Instru-
mentu anitzak eta Koral taldea.
Igartza Jauregian (lehenengo aldiz).

17 ▶ OSTIRALA

20:00etan.- Koral taldea eta Abesbatza. Andre Mari Zeruratuaren Elizan.

18 ▶ LARUNBATA

19:30ean.- Banda. Loinazko San Martin plazan.

19 ▶ IGANDEA

08:30ean.- Mendi irteera: Trinitatea (Iturgoien).
Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

12:00etan.- Entsegu irekia, emakumez osatuko Abesbatzak. Zuzendaria:
Javier Busto. Usurbe Antzokian.

12:00etan.- Ballet emanaldia: Gala Ballet eskolaren ikasturteko
amaierako ikuskizuna. Igartza jauregian.

20 ▶ ASTELEHENA

20:00etan.- Harizko Orkestra. Andre Mari Zeruratuaren Elizan.

San Joan bezpera

23 ▶ OSTEGUNA

21:30ean.- Txistularien igoera Barrendain plazara.

22:30ean.- Neskaxten esku-dantza Aurtzaka taldearen eskutik.

22:30ean.- San Joan sua.

Ondoren dantzaldia Koskola txarangarekin.
Barrendain plazan.

San Pedro jaiak Ezkiaga auzoan

25 ▶ LARUNBATA

14:30ean.- Bazkari herrikoia.

18:00etan.- Musika jaialdia.

19:00etan.- Buruhandiak.

28 ▶ ASTEARTEA

10:00ean.- Puzgarriak.

18:30etan.- Apar festa.

19:30etan.- Buruhandiak eta txistulariak.

20:00etan.- Txistorra eta sardina jana.

22:00etan.- San Pedro sua.

San Pedro jaiak Arriaran auzoan

29 ▶ ASTEAZKENA

AISIALDIKO UDALEKUAK

Ordua: 10:00-13:00

60 euro. Bi txandak 110 euro.

Bigarren senideak 55 euro. Bi txandak 50 euro.

Kopuru anitzeko familiak 50 euro.

Behar bereziko familiak 45 euro.

Zaintza: 08:30-10:00 Ludotekan. 25 euro.



ERAKUSKETA Lanegunetan: 19:00-21:00 Jaiegunetan: 12:00-14:00 / 19:00-21:00

Ekainaren 24tik uztailaren 3ra

BEAR pintura tailerran egindako lanak
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.



LOINATZ MUSIKA ESKOLA

Matrikulazio Epea:

Ikasle berriak: maiatzaren 23tik ekainaren 3ra.

Ordutegia: Astelehenetik asteazkenera, 09:00-13:30 eta 17:00-19:00.

Ostegun eta ostiralean, 09:00-13:30.

Loinazko San Martin plaza z/g Tel: 943 02 81 05

Prestakuntza musikala: Klarineta, tronpeta, biolina, saxofoia, txistua, trabes-
kako flauta, akordeoia, perkusioa, pianoa...

MUSIKA UDALEKUAK:

Ordua: 9:30-13:30

115 euro, 2 Senidea 95 euro. 3. Senidea 80 euro.

Zaintza: 08:30-09:30 Ludotekan. 25 euro.



BEASAINGO
UDAL
EUSKALTEGIA

UDAKO IKASTAROAK

Matrikula zabalik: ekainaren 13tik 24ra

Ikastaroak:

- Ekainaren 27tik uztailaren 24ra (goizez)

- Irailaren 5etik 24ra

KIROLETAKO UDALEKUAK

Ordua: 10:00-13:00

Bazkideak: 56,5 euro txandako. 105 euro bi txanda.

Ez bazkideak: 97,5 euro txandako.

Zaintza: 08:00-10:00. Bazkideak 32 euro. 60 euro bi txanda.

Ez bazkideak, 55 euro txandako.

Zaintza: 09:00-10:00. Bazkideak 20 euro. 36 euro bi txanda. Ez bazkideak 34 euro txandako.

L.G. SS-1284-2008

3828-011



Paper birziklatuan egina

Beasain

egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2011ko ekaina 31



Beasaingo Udala

30 urte kaleak girotzen

Zorionak Koskola!



5

ELKARRIZKETA
Arantxa Aseginolaza:
"Gehien, ezezkoa esatea kostatu
izan zait".

8

EHUNMILAK.
Mikel Valdivielso:
"Bigarren edizio bat prestatzea
errazagoa dela esan zuenak
gezur galanta bota zuen!".

9

HITZARMENA
Udalak Atzegiri etxebi-
zitza bat utzi dio adimen
urritasuna dutenentzat.

ASMO BERRIAK, EGITASMO BERRIAK

Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



jaien sustatzaile nagusi. Urtero bezala aurten ere herriko elkarte askorekin bildu dira jaietako ekitaldiak lotzeko.

Denen artean izen bat nabarmendu nahi dut: Arantxa Aseginolaza. Azken 18 urte hauetan Arantxa izan da Kultura Saileko arduradun politikoa, lan eskerga egin du jaiak eta urtean zehar egiten diren kultur ekintzen prestaketa lanetan. Zinegotzi lana uztear den honetan nire eskerrik beroena luzatu nahi diot.

Ez bakarrik Loinatzak, San Juan eta San Pedroak ekainean ditugu eta herriko hainbat auzo eta tokietan festak dira.

Beasaingo jaietan gurekin ditugu KOSKOLAKO lagunak, bere soinu alaiekin kaleak animatzen. Horien berri ere ematen da ale honetan.

Hau duzue nire azken idatzia alkate lanetan. Beraz agur denoi.

Ekaineko ale hau zure eskuetara iristen denean jakingo da nortzuk osatzen duten Udal berria. Ongi etorria beraz herrian zerbitzurako aukeratuak izan zeratenoi.

Asmo berriak, egitasmo berriak eta batipat ilusio handiz hartu beharreko eginkizuna esku artean duzuen eginkizun berri hau, beti ere beasaindarrak zuen lanaren helburu.

Elkarlana bultzateko garaia da eta liskarren gainetik adostasuna lantzekoa.

Aurten Loinatzak berandu datozkigu. Baina festa gogoa ez da moteldu. Aurtengo programa bete bete dator. Loinatzak herriarren festak izatea da udalaren nahia eta herriko talde askoren lanaren fruitua dira jaietako ekitaldiak.

Jaiak aipatzen direnean atzetik, ezkutuan, talde antolatzaile bat dago. Udaleko Kultura Saila dugu

Cuando este número de junio llegue a tus manos se sabrá quienes componen el nuevo ayuntamiento. Mi más sincera felicitación a l@s que han sido elegid@s para convertirse en servidores del pueblo. Nuevos deseos, nuevos proyectos y sobre todo mucha ilusión al acceder al nuevo cargo, pero sobre todo dispuestos a trabajar para el bien de los beasaindarras. Ese el momento de unir esfuerzos, promover el acuerdo frente a la confrontación.

Este año llegan con retraso los loinaces pero las ganas de fiesta no han disminuido. El programa de fiestas refleja el dinamismo de las diversas asociaciones que han trabajado por hacer unas fiestas populares y participativas. Detrás de estos eventos festivos está el trabajo silencioso de los organizadores y sobre todo el trabajo del departamento de Cultura y Euskara. Son muchas las horas que dedican a reuniones con agrupaciones, promotores culturales.. para confeccionar el programa festivo. Quiero resaltar la labor callada y eficaz de Arantxa Aseginolaza, que como concejal de cultura ha sido la responsable de los eventos festivos y culturales del municipio. Antes de dejar las tareas de concejal quiero agradecerle su dedicación y bien hacer. En junio también tenemos las populares fiestas de San Juan y San Pedro que se celebran en algunos barrios del municipio.

También tiene presencia en este número la txaranga KOSKOLA que su alegre música anima las fiestas. Este es mi último escrito como alcalde. Agur.

Beasain eta beasaindarrak

Puedes colgar tus fotos en www.guregipuzkoa.net

Algunos beasaindarras ya lo han hecho.

Éstas son algunas de las fotos que han subido. Animatu zaitetz!



"Oteiza eta kuboa" 2011. Xabier Eskisabel.



"Mari jeitsiera hasteko prest" - Beasaingo Udala.



"Txupinazoa udaltzainek" - Beasaingo Udala



"Sin título" - Beasaingo Udala



"Danborrada" - Beasaingo Udala



"Sin título" - Alicia Polo.



"Ume taldea moztarotuta Iturrioz kalean zehar" Beasaingo Udala.

Maiatzaren 22ko Udal Hauteskundeak

2007		
	Zinegotziak	Bozkak
	6	1549
	5	1175
	0	1124
	3	746
	2	571
	1	400

Bozka kopurua: 5.685
Abstentzioa: % 44

2011		
	Zinegotziak	Bozkak
	6	1949
	6	1905
	2	861
	1	462
	1	372
	1	319
	1	319
	0	181

Bozka kopurua: 6.241
Abstentzioa: % 39

▼ Koskola Txarangak 30 urte beteko ditu jaietan

30 urte pasa dira Koskola Txarangak 1981eko Loinatz festetan debutatu zuenetik. Bere historian zehar 100 bat pertsona pasatu dira taldetik, eta jada jaietako paisaian funtsezko elementu bihurtu da talde beasainarra. Zorionak eta urte askotarako!!!

La charanga Koskola echó a andar en 1981, de la mano de ex miembros de la Banda Municipal de Beasain, para entonces desaparecida, y de otros instrumentistas también de Beasain. Nació con el fin de poder contar con un grupo de músicos que impulsara actos festivos tanto en el municipio como en la comarca. Desde que debutó en las fiestas de Loinatz de aquel año, han participado en la charanga más de cien músicos tanto de Beasain como de toda Gipuzkoa. En estas tres últimas décadas, han sido los embajadores de Beasain, llevando con orgullo el nombre de Beasain a todas partes. Han estado en Valencia, Córdoba, Badajoz...

Según sus componentes, la charanga ha mantenido una relación muy estrecha con el departamento de Cultura del Ayuntamiento a lo largo de toda su trayectoria. No es para menos. Y es que Koskola siempre ha estado dispuesta a ambientar las calles de Beasain, participando en todos los actos, ayudando en la elaboración del programa de fiestas, recuperando las viejas partituras relacionadas con Beasain, diseñando novedades para la tamborrada y colaborando con la Banda Municipal de Txistularis, con grupos de baile, con asociaciones deportivas y culturales y con ONGs, entre otros.

Koskola acaba de grabar un disco y están deseando de que salga a la luz. Si todo va según lo previsto, estará en la calle para final de año.

Mikel Olano



"1994an sartu nintzen txaranga eta orduztik gauza asko gertatu dira. Egun saiatzen ari gara taldea sendotzen, baina batzuetan zaila da, jendeak ikasketak dituela, lana... jende dextente joan da, baina bilatu ditugu ordezkioak. Hiru multzo nagusi daude taldean, Beasaingoak, Ordiziakoak eta Tolosatik datozenak. Tolosan, adibidez, tradizio handia dago, inauterietara joaten ginenean atentzioa ematen zigun txarangek kaleak nola girotzen zituzten. Gure ametsa edo helburu nagusia da Beasaingo Banda sortzea, herrian talde garrantzitsu bat edukitzea, gazteek jotzeko aukera izan dezaten".

Txumi Campos



"Llevo en la charanga desde el inicio. La primera vez salimos fue un poco de cachondeo, pero después de aquellas fiestas decidimos seguir ensayando. He permanecido en la charanga todo este tiempo porque estoy a gusto, hay muy buen ambiente. Cuando tocamos en las fiestas, la gente está más espectadora, pero nos acogen bien siempre. Koskola se ha convertido con los años en una postal típica de las fiestas."

▼ Astindu atabalak!

Pello Irizarrek moldaketak egiten jarraitzen du Beasaingo danborradak bertako kutsua izan dezan

Koskola txarangarekin kaleak berotzeaz gain, Pello Irizarrek iaz "Beasain jaietan" eta "Aufa!" obrak moldatu zituen danborradarako, beasaindar kutsua emateko asmoz ikuskizunari. Errepertorio oso bat osatu nahi dute danborradarako, iaz arte, Donostian jotzen ziren piezak baino ez baitziren entzuten Beasainen. Aurten, Ignacio F. De Elizgaray konpositore azpeitiarrak 1909an idatzitako "Loinazko Martin Deunaren ereserkia" moldatu du. "Orain arte -dio Irizarrek- jaietan egiten den asteleheneko prozesioan jotzen zen, baina ikusita zer nolako lotura duen berreskuratzea erabaki dugu. Eta bigarren moldaketari "Beasainmendin" jarri diot izena. Ez dakigu ez jatorria, ez egilea zein den. 1940ko hamarkadan debekatu egin zuten txistua jotzea eta batzuk Beasainmendira joaten ziren txistuaren tradizioari euste aldera eta horrekin gogoratuz jarri diot izena, gure eskuetara iritsi den fandango bati. Eta fandangoak arin-arina behar duenez, 1989an, nire anaiak konposatutako "Prontxio" arin-arina ere joko dugu".



Xabier Garmendiaren argazkia.

Arantxa Aseginolaza, 20 urte kulturgintzan

“Hogei urte eman dizkiot herriari, honek eguneroko lan etengabea eskatzen du”

Tras cinco legislaturas como concejal de Cultura, Arantxa Aseginolaza pasa el relevo a gente nueva con la satisfacción de haber hecho su trabajo lo mejor posible y de la mano de las asociaciones de Beasain que han sido sus compañeras de viaje.

Trabajo nunca le ha faltado en el Ayuntamiento. Al igual que los diseñadores se adelantan una temporada, la concejal de Cultura tiene una doble labor: llevar a cabo lo programado y organizar lo que viene con dos o tres meses de anticipación. "Si estamos en el Otoño Cultural, estamos también preparando la programación de Navidad, y así todo el año". Arantxa Aseginolaza se despide tras cinco legislaturas al frente del departamento de Cultura de Beasain. Asegura que es hora de dar el relevo. No se arrepiente de lo hecho, sobre todo, porque ha intentado escuchar a todas aquellas personas que han tocado sus puertas y llevar a cabo las propuestas presentadas. "Me ha pasado pocas veces, pero lo he pasado muy mal cuando he tenido que decir que no", dice.



Zein da egiten duzun hausnarketa hainbeste urte eta gero?

Oso lan polita izan dela. Jende askorekin harremanetan jartzeko aukera eman dit, oso jende ezberdinarekin, gainera. Eta saiatu naiz, ez dakit lortu dudana, denak berdin tratatzen. Proiektu bat aurkezten dizutenean, benetan sinesten dutelako, nahiz eta nire edo Kultura batzordearen gustukoa ez izan, kontutan hartu behar duzu. Gogoratzen naiz nola harritu nintzen lehendabizikoz irrati-afizionatuak etorri zirenean. Ikusi nuenean nola bizi zuten beren zaletasuna, harrituta geratu nintzen, edo grafiti egileekin, edo... askorekin gertatu zait. Beraingana hurbildu behar duzu baloratzeko eta ahalik eta justuena izateko eta aukerak emateko.

Pena ere emango dizu...

Penarik ez. Uste dut orekatua izan naizela eta nitaz gain, hor dago batzordea. Lagunak irabazi ditut. Oso balorazio aberatsa egiten dut, zeren saiatu naiz ahal nuen guztia ematen. Kulturen lana egiten duten guztiei eskertu beharrean nago.

Hogei urte hauetan kultura errotik aldatu da. Zer azpimarratuko zenuke?

Herria eta gizartea aldatu diren moduan, kultura ere aldatu da, noski. Aurretik ia ekitza guztiak Udalak antolatzen zituen. Gu herriko elkarteekin hitzarmenak sinatzen hasi ginen, eta beraz, uste dut Beasaingo gizarteak nahi duen bezalako egitaraua eskaintzen dugula, taldeei nahi duten hura egiteko aukera emanez. Arlo guztietako taldeekin dugu akordioa eta hori da egitarauaren oinarria. Gero, nola ez, saiatzen gara hobekuntzak sartzen. Esan behar da Beasainen partaidetza handia dagoela. Azkenean, Udalak lagundu egiten die taldeei azpiegiturekin, diru-laguntzekin...

Herriko jaiak, "Antzerki Garaia", "Udazken Kulturala", "Beasaingo pape-
rak"... Esku-bete ekimen duzue.

Hala da, eta urteroko ekintzez gain, saiatzen gara hutsuneak betetzen. Hitzarmena sinatuta izan arren, elkarteek badakite urtean zehar ere euren proposamenak aurkezteko aukera badutela.

Egitaraua gizontzen joan zareten heinean, azpiegiturak ere hobetzen joan dira.

Hala da. Pentsa, Usurbe Antzokia duela 17 edo 18 urte ireki zen eta ordutik dantza, musika, bertso jaialdiak... denetarik ekimenen eszenatokia izan da. Hor dugu Urbietako Etxea ere. Lehen tailerrak sakabanatuta zeuden eta biltzea lortu genuen. Margolariak, zeramika taldekoak, irratizaleak, Zine Klubekoak, e.a. elkartzen dira. Egokiena litzateke eraikin oso-oso kultur erabilpenerako izatea. Liburutegian ere aldaketak eman dira. Informatizatu eta sarean sartu ginen, eta aurten berrantolaketa bat egin nahi izan dugu. Nafarroa etorbideko estalitako pilotalekua, plaza, Ezkiagako pilotalekua... Lehen Ludotekak ere Kulturatik eramaten ziren. Orain, Gazteriaren barruan daude.

Eta Igartza Jauregia, nola ez!

Hori da. Egitarau bat prestatu dugu uztailean arte luzatuko dena.

Kultura ere kontsumoan bihurtu da. Jendea esker onekoa da kultur eskaintzaren aurrean?

Jendeak galdetzen du "zer dago ba?" Jendea bere gustukua den hartaz bakarrik jabetzen da. Arlo guztiak jorratzen eta adin guztietako herritarrekin pentsatuz egin izan dugu lan.

▼ Loinatz Musika Eskola, jaiei doinua jarritz



Como en las anteriores ediciones, este año la Musika Eskola saldrá a las calles para poner ritmo a las fiestas. Participará en varios actos, entre otros, en la bajada de Mari, en la tamborrada, en la Feria Especial y en la Diana. "Es muy importante para nosotros participar en fiestas, nos gusta hacerlo. Además, hay que coger tiempo para disfrutar porque son días para dejar las responsabilidades y cargas a un lado y pasárnoslo bien", dice la directora Arantxa Gastesi.



Ekainaren 3a, ostirala

Mariren jaitsiera: 22:30ean, suziriarekin batera M.E.ko perkusio-joleak dira Mariren jaitsiera ekitaldiari hasiera ematen dietenak. Amaiera aldera M. E.ko trikitilariak izango dira festa giroa jarriko dutenak.

Ekainaren 4a, larunbata

Danborradak: M.E.ko Bandak haurren danborradan joko du, 12:45ean Loinazko San Martin plazan eta gauean, 24:00etan helduen danborradan, baita Loinazko San Martin plazan ere.

Ekainaren 7a, asteartea

Peria berezia: M.E.ko trikitilariak peria eguna girotuko dute 12:00etatik aurrera.

Ekainaren 3, 4, 5, 6, 7 eta 11n

Dianak: M.E.ko txistulariak Udal txistulari bandarekin batera Dianak joko dituzte, goizean goiz herritarrak modu alaiean iratzarrit.



▼ Pilota txapelketa, azken txanpan

Datorren igandean, ekainaren 5ean, jokatuko dira pilota txapelketa herrikoiairen finala eta finalaurrekoak

Beasaingo pilota txapelketa herrikoiairen bigarren edizioa pil-pilean dago. Loinatzeko jaietako igandean, datorren ekainaren 5ean, jokatuko dira final handia eta finalaurrekoak. Sei hilabetez –astero ostira-lean eta igandean izan dira kanporaketak– gogotsu aritu dira txapelketan aurkeztutako 40 bikoteak. 2011 honetan iaz baino hamabi bikote gehiagok eman dute izena. "Izen eman duen jende kopuruari erreparaturaz, oso gustura gaude, iaz baino partaide gehiago bildu baititugu. Pena da, ordea, deialdi irekia izanik, neskari ez izatea", dio Koldo Agirre antolakuntza taldeko kideak. Edizio honetan, bikoteak osatzeko garaian, bikote bakoitzeko kide batek beasaindarra izan behar zuen nahitaez: "Agerian jarri da zaletasuna egon badagoela herrian. Ziur finalean izugarritzko giroa sortuko dela. Gainera, parte hartzaileak federatuak izan ez arren, kalitatea eta maila oso altua erakutsi dute txapelketa osoan zehar, eta jendeak asko gozatu du". Txapelketa irabazten duen bikoteak garaikurra eta Kuko jatetxean bi afari irabaziko ditu. Bigarren eta hirugarren sailkatzen direnek, berriz, oroigarria eta bina afari.



Antton Aranburu, Jon Ander Esnaola, Unai Mujika, Unai Amundarain eta Koldo Agirre eta argazkian azaldu ez arren partaide dira, Asier eta Mikel Larrañaga ere.

▼ Los beasaindarras podrán votar el mejor escaparate hasta el día 10

Bareak merkatari elkarteak eta Udalak antolatuta, abian da Loinatz Jaietako Erakusleio eta Lokalen Dotoretze lehiaketa. Dagoeneko partaideen izen-emate epea amaitu da baina orain herritarren txanda da. Izan ere, datorren ekainaren 10era bitartean, erakusleio onenaren aldeko botoa eman dezake. Gainera, botoa ematen dutenen artean, Bareakek Xerbera jatetxean bi pertsonarentzat otordua zozketatuko du.

Partaideak:

Lehiaketan ondorengo establezimenduek parte hartuko dute: Abio Bidaia, Alzuri, Amets, Fotoetxe, Itak, Lirain lurindegia, Mujika harategia, Otea, San Martin autozerbitzua, Zureztat lentzeria eta Pergola lentzeria.

Bozkatzeko:

E-postaz: bareak@bareak.eu

SMS bidez: bidali mezua 688 887 538 telefonora.

Adibi: ERAK + dendaren izena.

Telefonoz: 688 887 538 - 943 08 79 88.



2010eko sari banaketa.

2011ko Ehunmilak, gero eta gertuago

La segunda edición de Ehunmilak está ya a la vuelta de la esquina. Considerando la dureza y la complicación que entraña, la prueba requiere un equipo humano bien organizado y estructurado para que, además de garantizar la seguridad de los participantes, estos dispongan de los recursos necesarios para enfrentarse a ese gran reto. A la sombra de esta carrera de ultratrail hay una cantidad ingente de personas dispuestas a dar lo mejor de sí para que los días 15, 16 y 17 de julio todo vaya sobre ruedas. El presidente de la comisión organizadora de la prueba, Mikel Valdivielso, cuenta los entresijos de la segunda edición.



MIKEL VALDIVIELSO *Antolatzailea*

“Bigarren edizio bat prestatzea errazagoa dela esan zuenak gezur galanta bota zuen!”



Ehunmilak probaren bigarren edizioa ate joka dugu jada. Zer moduz doaz mendi lasterketaren antolaketa lanak?

Halako proba bat antolatzeak lan handia ematen du. Bigarren edizio bat prestatzea errazagoa dela esan zuenak gezur galanta bota zuen! Egia esan, iazko esperientzia oinarri izaki, hainbat alor hobetzen saiatu gara, hortan gabiltza... baina ekonomia krisiak ez du ezertxo ere laguntzen, zentzu horretan iaz zailasunak izan bagenituen, aurtan are eta okerrago. Aztertu behar da probaren bideragarritasun ekonomikoa, aurrekontuak borobildu... konplikatu da. Baina egia esan herrietako taldeek ondo funtzionatzeko dute eta lana errazten du. Sei astetik behin elkartzen gara guztiok, eta batzordean gaudenok astero.

Arazo ekonomikoaren kontrapuntua izan daiteke lasterketak biltzen duen bolondres kopuru handia...

Bai, halaxe da. Zorionez, boluntariotza aldetik arrakasta izugarria du probak. Proiektu indartsua da sozialki. Pentsa, iaz 1300 bat pertsona aritu ziren bolondres modura, hau da, probak dituen kilometroak baino pertsona gehiago, hori oso esanguratsua da; jendea sentimentu batek bultzatzen du... mendi puntan euritan eta hotzez akabatzen, egoera horri eustekak meritu handia du, txalotzekoa da. Iazko edizioan lasterkariak bolondresen emandako berotasuna azpimarratzen zuten. Arlo sozialean Ehunmiletan egiten den lana ikaragarria da.

Berrikuntzarik ba al da uztaileira begira?

Antolatzaileok komunikazio barne-sistema bat sortu dugu, walkie-talkie bitartez guztiok une bakoitzean gertatzen denaren berri izateko. Hala, Txindokin dagoen batek eta Azpeitian dagoenak aldi berean gertatzen dena jakiteak abantaila asko ekarriko ditu, batez ere estaldura eta berme aldetik. Espero dugu iazko eguraldi txarra ez errepikatzea.

Un verdadero hogar para las personas con discapacidad intelectual

“Zenbat eta gehiago ezagutu adimen urritasuna duten pertsonak, are eta gehiago maitatzen dira”

JOSE LUIS BASOKO *Atzegiko zuzendaria*

El Ayuntamiento de Beasain cede un piso de protección oficial a Atzegi, destinado a personas discapacitadas que, entre otros motivos, no tienen una familia que les pueda atender. La vivienda cuenta con ocho plazas para usuarios y dos más para el personal de apoyo. Para el director de Atzegi, Jose Luis Basoko, este tipo de medidas permite que se les conozca más y mejor, y por eso tienen “el valor de acogida, de reconocimiento, de dignidad de las personas”. Con ellos en la calle y compartiendo la vida cotidiana, también la sociedad de Beasain será más humana, “porque -dice Basoko- ellos aprenden de nosotros y nosotros de ellos”. ¡Bienvenidos sean!

Zenbateraino da garrantzitsua zuentzat Beasaingo Udalak hartutako neurria, pisu bat utziz?

Guretzat oso da garrantzitsua adimen urritasuna duten pertsonen gainerakoek erabiltzen dituzten baliabide berak erabiltzea edo testuinguru berdinetan mugitzeko aukera izatea. Horrelako erabakiei esker, jendeak ezagutu egiten ditu eta zenbat eta gehiago ezagutu, are eta gehiago maitatzen dira, errezeloak eta mesfidantzak uxatuz. Ezberdinak dira, ez hobeak eta ez txarragoak. Eta ezberdintasun hori aberasgarria da. Oso eskertuta gaude Beasaingo Udalari eta gizarteari.

Atzegik 51 urte daramatza lanean eta nabaritzen da egindako lana. Sasoi batean adimen urritasuna zuen jendea etxetik ez zen ateratzen...

Hala da. Gure herrietan kalean egiten dute bizitza. Gauza askotan izugarri aurreratu da eta hori gipuzkoarren izaeragatik eta hemengo boluntariotza mailagatik da. Horrek Gipuzkoa lurralde nahikoa sentibera egiten du gai hauen inguruan.

Atzegiren helburua da inork bere herria utzi beharrik ez izatea baliabide edo zerbitzu ezagatik, ala?

Hori da. Guk bailara guztietan ditugu zerbitzuak. Nahi duguna da Beasaingo jendeari Beasainen arreta eskaintzea. Inor ez dadila bere herritik atera beharrean aurkitu, bere familiarekin bizi daitekeen bitartean. Eta guk laguntzak emango dizkiogu. Norbere ingurune soziala mesedegarria izaten laguntzea da hoberena, duinena eta gomendagarriena. Ez ditugu egoitzak nahi. Etxebizitza batean hobeto daude, Eguneko Zentrora joanez, Gureaken lantegietara, Txolartera... zerbitzu horiek ahalbidetzen dute pertsona horiek Beasainen bizitza egin ahal izatea.

Etxebizitzan kasuan, zein da antolakuntza?

Zortzi lagunek ere ditugu. Eta beraiekin beste bi lagun egoten dira laguntzeko. Egoitza handietan erabiltzailea ia-ia zenbaki huts bat izaten da. Ez dugu hori nahi. Besteek bezalako bizitza eramateko aukerak eman nahi dizkiegu. Eta laguntzaileen eta erabiltzaileen arteko harremana oso ezberdina da egoitza batean edo pisu batean.

Zenbat zarete Atzegein?

Pentsa, lanean ari garenen %2 Gureaken ari da lanean. Gureakek sortutako enpresetan 4.000 lagunetik gora dabilta. Atzegein, berriz, 2000 pertsona baino gehiago ditugu. Hasi ginenean, adimen urritasuna zuten haurrek ez zuten ezertarako eskubiderik. Ni, boluntario gisa, etxeetara joaten nintzen klaseak ematera. Lehenengo lana eskolak sortzea izan zen. Gero, 1972an, lantegiekin hasi ginen eta handik sortu zen Gureak. Lehenengoak izan ginen estatu mailan. Hurrengo urratsa izan zen eskola bereziak desagertu eta adimen urritasuna zuten haurrak ohiko hezkuntza zentroetan eskolatzea. Geroago Txolarre Klubak jarri ziren martxan aisialdiaz goza zezaten. Beraientzat oso da garrantzitsua lagunekin egoteko aukera izatea, kanpora irtetea...



“Respecto a la participación, estamos muy por delante y es por el carácter guipuzcoano y por el voluntariado, que hace de Gipuzkoa un territorio especialmente sensible”.

“Queremos que la gente de Beasain sea atendida en Beasain. Que nadie tenga que salir de su entorno mientras pueda vivir con su familia”.

“Prácticamente el 2% de las personas que trabajan por cuenta ajena lo hacen en empresas creadas por Gureak. Son más de 4.000 personas”.

“Estamos muy agradecidos al Ayuntamiento de Beasain y a los beasaindarras por habernos dado esta oportunidad”.



Asmube y Nagusilan estrenan nuevo local

Udalak lokal berri bat utzi die Asmube eta Nagusilan elkarteei euren jarduerekin erosotasunez jarrai dezaten. Oriamendi kaleko 18. zenbakian dago lokala eta erabiltzaileak pozik daude toki gehiago izango dutelako hemendik aurrera euren ekintzetarako. "Hemen hobeto egongo gara, nola ez. Aurreko lokala hemendik oso hurbil dago, baina hezetasun handiagoa izateaz gain, irisgarritasun aldetik ez zegoen egokituta. Eskailerak genituen. Lokal hau erosoagoa da guretzat", dio Asmubeko Joxepi Jau-regik. Nagusilaneokekin partekatuko dute 150 m²ko egoitza.



Lorenzo Larrea, Mari Paz Alvarez, Joxepi Jauregi eta Patxi Berasategi

Parkeetan segurtasuna bermatzeko, zoru berria

Udalak Gernika pasealekuko eta Geltoki pareko parkeetan zorua aldatu du, erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko aldera. Oraingo lurzorua biguinagoa da eta erori arren, kolpeak askoz ere arinagoak izaten dira.



Rehabilitación de Arana kalea

Pixkanaka ari da Arana kalea itxuraberritzen. Dagoeneko eraikin batzuk margotu dira eta duela hilabete batzuekin alderatuz, nabarmena da birgaitze lanen ondorioz emandako aldaketa, oraindik obrak ez diren guztiz amaitu.



Lazkaora doan bidegorriaz gozatuz

Udalerriko bidegorri sarea zabalduz doa eta gero eta gehiago dira txirinduan ibiltzeko edo paseatzeko erabiltzen dutenak. Erantzun ona izan du, besteak beste, Beasain eta Lazkao lotzen dituen bidegorriak. Kirola egiteko eta osasuna zaintzeko beste aukera bat eskaintzen du.



San Pedroak

3ª Edición de la paella popular en Ezkiaga auzoa

Como todos los años, la asociación de vecinos de la Portería (conocido por muchos como Ezkiaga) ha organizado actividades para toda la familia en la festividad de San Pedro. La gastronomía cobra fuerza en estas fiestas del barrio beasaindarra: el sábado día 25 los vecinos se sentarán alrededor de la mesa para disfrutar del banquete de sardinas y txistorra, y harán lo mismo el martes día 28 con la "paellada", que en su tercera edición volverá a ser sin duda uno de los platos fuertes del día de San Pedro. "La paellada está teniendo cada vez más afluencia de público; el año pasado fueron 200 las personas que se acercaron a la paella popular, este año queremos sufrir esa cifra a 300", comenta Ana Uranga, una de las organizadoras de las fiestas.

Bestelako jarduerak:

Larunbatean, ekainaren 25ean, herri-paellaren ostean bakarrikzketak izango dira ikusgai. Ondoren buruhandiak aterako dira etxeko txikientzat eta, eguna amaitzeko, musika jaialdia eskainiko da. Asteartean, ekainaren 28an, gaztetxoentzat puzgarriak jarriko dituzte egunean zehar, eta euren eguna biribiltzeko apar festa egingo dute. Buru handiak berriz ere aterako dira, eta jaiak modu ezin hobean amaitzeko, sardina eta txistorra jana izango da pilotalekuan.



San Joanak

Murumendiko Mariren kondaira, gaur egungo ikuspegitik

"Hijos de Martín y Loinaz Kolektiboa" taldeak Murumendiko Mariren kondaira antzeztuko du, patriarkatuaren eta matriarkatuaren arteko gatazka eszenaratuz.

"Kondairak dio Marik ez zuela umerik bataiatu nahi. Halako batean, senarrak gurdian lotu eta haurrak elizara bataiatzera eramatera behartu zuen. Orduan, Marik esan zuen: "nire seme-alabak elizarako. Ni, Mururako" eta hegan alde egin zuen. Guk mito hori taularatu nahi dugu baina gaur egungo ikuspegitik", dio Hijos de Martín y Loinaz Kolektiboko Gorka Zubeldiak. "Aukera ematen digu patriarkatuaren eta matriarkatuaren arteko gatazkaz aritzeko, sinismen zaharrez eta berriez. Txikia nintzenean, Mariri buruzko antzezlan bat aurkeztu zen Beasainen eta han dago egingo dugunaren jatorria". Antzezlanean akelarre bat egingo dute eta jende askok hartuko du parte.

Antzezlanea San Joan egunean aurkeztuko dute, Dolarea parkean. Zubeldiaren hitzetan, polita litzateke urtero San Joanetan lan berri bat taularatzea.

El grupo "Hijos de Martín y Loinaz Kolektiboa" llevará a escena la leyenda de Mari, desde una interpretación actual. Será el día de San Joan, en el parque Dolarea.



Argazkia; Xabier Eskisabel.